

Euskararen aurkako beste epai bat Gasteizen

UNAI LOMANA URIBEZUBIA :: 13/03/2025

Bitarteko Idazkari izateko lan poltsan parte hartzeko hizkuntza-eskakizunak indargabetu ditu EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak.

EAEko Justizia Auzitegi Gorenak 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak baliorik gabe utzi ditu. Bitarteko idazkarietzako eta kontu-hartzaileentzako lan-poltsako baldintza gisa, Naizek jaso duenez.

Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren 2021eko apirilaren 22ko Aginduan jasotzen da araudia. Horren kontra egin zuen Bizkaiko Idazkari, Kontu-hartzaile eta Diruzainen Elkargo Ofizialak, Gasteizeko Auzitegian. Ondoren, Auzitegiak arrazoa eman eta Gobernuak onartutako sei agindu baliogabetu zituen, haien artean: hautaketa-prozesuaren egokitasuna eta hizkuntza-eskakizunak egiaztatzen zituen bi.

Jaurlaritzak epaiari errekurtsioa jarri zion, EAEko Justizia Auzitegi Nagusian. Horrek orain, Gasteizeko Auzitegiak hartutako erabakia partzialki errebokatu du; nahiz eta euskara eskakizunik altuenak indargabetzea berretsi duen.

Auzitegi Nagusiak adierazi du euskara eskakizuna ez zuten lehiakideak izendapenetik kanpo uzten zituela hautaketak, "nahiz eta kasu batzuetan baldintza hori guztiz baztergarria izan". Halaber, ez zuen "inolako merezimendurik eta gaitasunik" kontuan hartzen; Naizek jakinarazi duenez.

Beste epai euskarafobo bat: Bitarteko Idazkari izateko lan poltsa eskaeraren aurka

<https://eh.lahaine.org/euskararen-aurkako-beste-epai-bat>